

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Carlos Hernández Sáezek Navarrabiomeden ikertzen jarraituko du Roche Farma Espainiaren ‘adituen ihesari stopa’ bekari esker

Immunoterapiak minbiziaren eta bereziki birikako minbiziaren aurka izan dezakeen erabileraren alderdi desberdinak ikertuko ditu Navarrabiomeden

Astelehena, 2019.eko otsailak 25

Gaur egin da [Navarrabiomeden](#), proiektuak garatzeko baliabiderik ezagatik atzerrira joan behar duten ikertzaile espainiarren talentuari atxikitzeko [Roche Farma Espainiak](#) abiarazitako ‘Adituen Ihesari Stop’ deritzon beka berri bat emateko ekitaldia.

Ekitaldian izan dira Nafarroako Gobernuko Osasun

Departamentuko zuzendari nagusi Luis Gabilondo, Navarrabiomedeko zuzendari Iñigo Lasa eta Roche Farmako Regional Access & Business arloko zuzendari Mónica Palomanes, Navarrabiomed ikerketa biomedikoko zentroko Immunomodulazio Unitatean lanean diharduen Carlos Hernández doktore ondoko ikertzaileari beka emateko.

‘Adituen Ihesari Stop’ deritzon ekimenaren bitartez, Roche Farma Espainiak berrikuntza bultzatzen du tokiko osasun eremuan. Carlos Hernández ikertzailearen esanetan, beka honek lanean jarraitu eta ikerketa-karrera aurrera bultzatzeko aukera eman dio, eta laguntza hori jaso ezean, beste irtenbide profesional batzuk aztertu edo atzerrira ikertzera joan beharko zukeen.

Carlos Hernándezek adierazitakoaren arabera, “Rocheren ekimenari esker, ikertzaile askok Espainian jarraitu ahalko dute, eta honek gizartearen mesedeko ikertzaile-sarea sortzen lagunduko du”.



Ezkerretik eskuinera, Lasa, Hernández, Palomanes eta Gabilondo, beka emateko unean.

**Abangoardiako
ikerketa: minbiziaren
aurkako immunoterapia**

Carlos Hernández
ikertzaile dabilen
Immunomodulazio Unitateak era
koordinatuan lan egiten du

Nafarroako Ospitaleguneko Onkologia Medikoko Zerbitzuarekin. Unitate honetan, garrantzi handiko lana egiten ari da paziente onkologikoen tratamendurako immunoterapien garapenaren inguruan.



Saritua, agintariak eta Rocheren ordezkaria, bekaren aurkezpenean.

Tumorea garatzen denean, minbiziaren zelulek sistema immunitarioa inhibitzen dute, eraso egin ez diezaion. Ildo horretan, sistema immunitarioa berraktibatzea da immunoterapiaren helburua, tumoreari berriz ere eraso egin diezaion, erabat desegin arte. Immunoterapiari erantzungo dioten pazienteak identifikatzeko biomarkadoreak garatzea da laguntza jaso duen zientzialariak garatu beharreko ikerketaren ardatza, horrelako tratamenduek beste pazienteengan duten eraginik ezaren kausak ikertzeaz gain.

Momentuz, ikerketa birrikako minbiziari zuzendu zaio, baina beste tumore mota batzuetan ere aplikatu daiteke.

Adituen Ihesari Stop beka

Adituen Ihesari Stop deritzen beken bitartez, Roche ikerketa sustatzea xede duten doktore aurreko eta doktore ondoko proiektuen finantzaketa bultzatzeko tresna bat jarri du autonomia-erkidegoetako osasun departamentuen eskura.

Beka hauek 60.000 euroko diru-kopurua atxikia dute 18 hilabeteko epealdirako, eta proiektuarekin bat egindako autonomia-erkidegoetako osasun erakundeek kudeatzen dituzte, Roche Farmaren eta osasun erakunde bakoitzak izendaturiko entitatearen arteko lankidetzaren bidez. Orain arte, honako autonomia-erkidego hauek atxiki zaizkio lankidetzaren formula honi: Andaluzia, Aragoi, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Valentziar Komunitatea, Madrid, Murtzia, Nafarroa eta Euskadi.

Horren harira gogoratu behar da beka hauek ikertzaile-sare baten sorrera sustatu dutela Espainian. Egun, kualifikazio goreneko gazte askok ez dituzte aukerarik onenak aurkitzen geure artean. Egoera honi erantzun eraginkorra ematea da ekimen honen xede nagusia.